

## FILM BAT IKUSIKO DUGU? Piezen letrak

### ASMAKIZUNAK

- Berdea-berdea, ez da muskerra. Zuri-zuria ez da papera. Bizarra du ez da gizona. Zer dela pents? (Porrua)
- Jaiotzez okerra, gaztetan fanfarroi eta zahartuta zimur. Zer dela pents? (Iratzea)

### ERRANAK / ESAPIDEAK

- Negu gorria
- Goseak akabatzen egon
- Goseak hila
- Hori marka!
- Hesteak bota
- Irriz lehertua
- Hastear dago
- Gose izan
- Hau kuxidadea!

### IPUINA

#### Asto zaharra mukizu (Azpituduetakoa)

Ipuin hau asto batekin hasten da. Asto hau zera zegoen, bada, bordan lotuta soka lodi batekin, e? eta ez zeukan belarrik ondoan, ez zegoen belarrik eta brrrr! gosez amorratzen zegoen. Beraz, astoa haserre, ta-ta-ta-ta-ta! soka apurtu eta txun! Trukutun! Trukutun! Trukutun! Trukutun! Atera zen belar bila, gosea asetzeko.

Ermitan, ermitaren ondoan, belardi bat ikusi zuen eta han hasi zen jra! jra! belarra jaten gustura! Orduan agertu zen handik, basotik, otsoa. Eta otsoak astoa ikusi zuen eta pentsatu zuen: "Mmmmm!! Aaaa!!! Nire afaria hemen dago!! Ja, ja, ja!". Beraz, poliki-poliki astoarengana hurbildu eta horrela abestu zion:

- Agur, agur, astoko!

Eta astoak esan zion:

- Ongi etorri, otsoko!

Orduan otsoak esan zion:

- Gaurko nire afari, hire buru eta beharri!

Orduan astoa pixka bat beldurtu egin zen "Ai, ama!! E... A... Zer egin dezaket? Zer egin dezaket?".

Orduan ideia bat pentsatu zuen eta horrela abestu zion:

- Han goitian artalde, artzainik ez dute batere. Baldin joaten *bazineke*, zikiro parea *zenduke*.

Ja! Baina otsoa oso azkarra zen eta "Asto honek ziria sartu nahi dit" -berehala jakin zuen-. Eta horrela erantzun zion abesten:

- Oinean diat arantze, ezin frinkatu bezalaxe.

Orduan astoak azkar-azkar erantzun zion:

- Han behegian ermita, meza entzun behar diat eta.

Eta, trokoton! Trokoton! Trokoton! Trokoton! Trokoton! Bertan joan zen korrika, ermita barruan estali zen. Pun! Otsoa bat-batean harrituta gelditu zen, "Baina nola da posible?!" eta horrela erantzun zion:

- Asto zaharra, mukizu, sobera malezia dakizu, berriz erreka aldean harrapatzen bazaitut, meza entzuteko lanik izanen ez duzu!

Eta, horrela, otsoa goseak gelditu zen.

### **(Gidoirako idatzitakoa)**

Bazen etxe batean asto zahar-zahar bat, erdi goseak bizi zena. Lokarri handi batekin lotua egoten zen eta, halako batean, bururatu zitzaion hura moztu eta joan behar zuela larrera asetzera, beti goseak baitzegoen.

Bere hortz handiekin moztu zuen lokarri hura, eta joan egin zen. Larrean jan eta jan ari zen, eta ohartu zen gaineko aldean ermita koxkor bat bazela.

Hara joan eta bertan belar berdea harrapatu zuen. Ona! Han zegoen, ase, eguzkitan mandaloan.

Halako batean, otsoa etorri zitzaion.

Otsoak pentsatu zuen: "Ooooi! Demontreko bazkaria dut gaur!". Eta solasean hasi ziren, kantari:

- Agur, agur, astoko!
- Ongi etorri, otsoko!
- Gaurko nire afari, hire buru ta beharri!

"Ooooi! Hemen zer pasatu behar ote du?"-pentsatu zuen astoak urduri. Eta orduan astoak erantzun zion otsoari:

- Han goitian artalde, artzainik ez dute batere. Baldin joaten *bazineke*, zikiro parea *zenduke*.

Orduan otsoak pentsatu zuen: "Ooooo! Hau malizia handiarekin ari da". Eta astoari esan zion:

- Oinean diat arantze, ezin frinkatu bezalaxe.

Otsoak ez zuen joan nahi hara gora ardi bila. Astoa gero eta larriago zegoen ez zekielako nola alde egin, eta orduan erran zion:

- Han beheitian ermita, meza entzun behar diat eta.

Otsoak gutxien espero zuenean, astoak, katakun-katakun!, alde egin eta ermitan sartzea lortu zuen; hango atea itxi eta barrenean gelditu zen. Otsoak, hori ikusita, karraskaka, ez zekien zer egin, astoa jateko aukera galdu baitzuen; orduan hau kantatu zion:

- Asto zaharra, mukizu, sobera malezia dakizu, berriz erreka aldean harrapatzen bazaitut, meza entzuteko lanik izanen ez duzu!

## **ZIRTOA**

- Barkatu!  
Ez da bekatu!